

"Itzalak" film laburrak irabazi du euskarazko film labur onenaren saria Huhezineman

2008/05/12

Sari nagusiak horrela banatu ziren:

HUHEZIKo ikasleek egindako lanetan

- **Fikziozko lanik onena:** *Tempus fugit*. Zuzendaria: Nerea Ruiz de Azua.
- **Dokumental onena:** *People are strange*. Zuzendaria: Iagoba Domingo.



Lehiaketako lanik onenak

- **Fikziozko lan onena:** *Montenegro*. Zuzendaria: Lander Camarero Llamosas.
- **Dokumental onena:** *La discapacidad invisible*. Zuzendaria: Ane Larrañaga.
- **Euskarazko film labur onena / Goiena saria:** *Itzalak*. Zuzendaria: Iñigo Quintana.

Film sarituen proiektzioa

Maiatzaren 9an, ostirala, saritutako bost filmak proiektatuko dira Kulturaten arratsaldeko 20:00etan, eta proiektzio horrek amaiera emango dio aurtengo Huhezinemari, film labur eta dokumentalen zinemaldi bat, HUHEZIKo ikasleek antolatua, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari diren 4. mailako ikasleek.

Lehen aldi honek arrakasta handia izan du, guztira **41 film labur** aurkeztu baitira bertara, horietatik **35 fikziozkoak** eta **6 dokumental**. Egileak ere gazteak izan dira, 25 eta 30 urte artekoak, gehienak mutilak.

Proiektzioez gain, Huhezinemak **bi lantegi** eskaini ditu. [Aizpea Goenagak](#) zuzendu zuen bat, aktoreen zuzendaritzari buruz, eta [Moriarti Produkzioak](#) bestea, fikziozko zineaz eta dokumentalei buruz.